

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko euskararen sustapenari buruzko lankidetza hitzarmena

2021eko ERANSKINA

Bildurik

Bingen Zupiria Gorostidi, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,

Ana Ollo Hualde, Nafarroako Foru Komunitateko Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria,

Antton Curutcharry, Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria,

Honako hau,

Adierazten dute

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2017ko ekainaren 20ko bileran, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gai jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetza garatzeko hitzarmena izenpetzea onartu zuen.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila


Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua


Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa
A.C.

Era berean, Nafarroako Gobernuak, 2017ko ekainaren 21ean, hitzarmen hori izenpetzea onartu zuen.

Baita Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, 2017ko ekainaren 1eko bileran, hitzarmen hori izenpetzea onartu zuen.

Horrela, 2017ko uztailaren 3an, Iruñan hiru erakundeen arteko lankidetzahitzarmena sinatu zen.

2017-2021 epealdirako indarraldia duen hitzarmen-marko horren xedea da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Nafarroako Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren, eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gai jakin batzuetan mugaz gaindiko lankidetzagaratzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz.

Elkarlana zehazteko prozedurari dagokionez, hitzarmen-markoaren laugarren atalean adierazten da urtero jarduera zehatzen azterketa eta jarduera planaren proposamena egitea.

Hori horrela, eranskin honek 2021eko jardueren plana zehatzen du.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila


Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua


Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa


Xedapenak

I. ARTIKULUA - Hitzarmen eranskinaren helburua

Eranskin honen xedea da 2021eko jardueren plan zehatza finkatzea, euskararen sustapenari buruzko 2017-2021 Hitzarmen-markoan, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean adostu lankidetzagaratzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz.

II. ARTIKULUA- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Euskarabideak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2021ean elkarlanean garatuko dituzten jarduerak

1. Hezkuntza eta helduen euskalduntzea

1.1. Hezkuntza

- a) Ikasketak osoki edo partez euskaraz jarraitu nahi dituzten ikasleentzat EAE eta Nafarroako unibertsitateetako eta goi mailako eskoletako sarbide aukerak eta moduak

2021erako partaideek adostua:

- Iparraldeko ikasleen eskaeren, oztopoen eta zailtasunen zaintza jarraitzea
- honen oinarrian, aukera ezberdinak aztertzea Iparraldeko ikasleentzat EAEko eta Nafarroako unibertsitateetako edo goi mailako eskoletako sarbidea errazteko.

1.2. Helduen euskalduntzea

- a) Irakasleen berariazko prestakuntza

2021erako partaideek adostua:

- Hiru aldeek helduen euskalduntzean ari diren profesionalen aukera ematea helduentzako euskararen irakaskuntzan erakunde bakoitzak antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartzeko,

- b) HABE liburutegiko zerbitzuak eskaintzea

2021erako partaideek adostua:

- HABE Liburutegia, Euskararen Erakunde Publikoan zein Euskarabidean diharduten teknikarien dokumentu-hornitzaile izatea (liburu, artikulua edo beste, paperean zein digitalean). Zentzu horretan, teknikariek dituzten dokumentazio-beharrei erantzungo die HABE Liburutegiak dokumentu horiek teknikariei helaraziz.
- HABE Liburutegiak, teknikarien aldetik egon daitezkeen gaikako kontsulta espezifikoei bibliografia zehatza eskainiz erantzutea,
- aipatu teknikariei, Alertak izeneko zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila


Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua


Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa
A C

1.3. Hizkuntza gaitasunaren egiaztapena

a) Ziurtagirien baliokidetzak

2021erako partaideek adostua:

- Eusko Jaurlaritzak Iparraldeko B1 mailako agiriaren eta Nafarroako B2 mailako agiriaren baliokidetzak 2021ean argitaratzea,

b) Egiaztatze gintza

2021erako partaideek adostua:

- Ikasprozesuon ebaluazio zein egiaztatze gintzarako irizpideak, tresnak, garaiak eta jarraibideak egoki egituratu eta uztartzen hastea,
- Euskaltegi-tako irakasle eta egiaztatze gintzan diharduten adituen arteko lan-eremu bateratuak antolatzen hastea.

2. Euskararen erabilpena sustatzea

2.1. Mugaz gaindiko egonaldiak

2021erako 3 partaideek adostua:

- 2020an 3 lurraldeetan dauden ekimen eta aukera ezberdinak landu ondoren, euskarazko mugaz gaindiko egonaldi proiektu esperimental baten egingarritasuna aztertzea,
- dauden mugaz gaindiko ekimenen sustatze eta laguntza eskaerak elkarrekin aztertzea.


2.2 Kirola

2021erako 3 partaideek adostua:

- hiru eremuetan kirolean Euskara sustatzeko dauden planak eta estrategiak partekatzea,
- EAEko kirole-tako teknikarientzako eta entrenatzaileentzako sortuko diren euskarazko baliabideak eta materialak partekatzea.

2.3 Ingurune digitala

- #### a) Hizkuntza teknologiarren zein ingurune digitalaren esparruan sustatzen ari diren egitasmoak partekatzea



2021erako partaideek adostua:

- Euskararen Aholku Batzordearen Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal Bereziak egindako lanak partekatzea,
- hizkuntza teknologiaren esparruan sortzen diren egitasmoak partekatzea: Itzultzaile neuronala, Itzuli+ tresna barra...

b) Interneten euskarak duen presentziaren garapena, bereziki euskarazko wikipediaren egitasmoaren bitartez

2021erako partaideek adostua:

- alde bakoitzak Wikilarien Elkartearekin esku artean dituen egitasmo eta asmoen berri ematea elkarri,
- Wikipedian euskarazko edukiak eta erabilera garatzeko proiektu bateratu bat bideratzeko egingarritasuna aztertzea.

c) Haur-gaztetxoek elkargune digitala:

2021erako partaideek adostua:

- hiru eremuetako haur-gaztetxoentzat modu telematikoa, jarduera saio digital baten proiektu esperimental baten egingarritasuna aztertzea.



2.4 Arlo-sozioekonomikoa

2021erako partaideek adostua:

- 2020an hiru eremuetan arlo-sozioekonomikoa euskara sustatzeko dauden praktika eta dispositiboei buruz egindako diagnostikoaren oinarrian, lurralde bakoitzaren errealitateak kontuan hartzen dituen enpresak laguntzeko dispositibo amankomun edo bereziak aztertzea.
- Eremu sozio-ekonomikoa euskararen erabileraren garapenari buruzko metodologiaren definizio lanei dagokion informazioa partekatzea.



2.5 Hedabideetan

2021erako partaideek adostua:

- Hiru eremuetan euskarazko hedabideak sustatzeko dauden praktikak eta estrategiak partekatzea,
- Hiru eremuetako euskal hedabideen audientzia neurketa komunen egingarritasuna aztertzea.



3. Euskararen aldeko gogoeta eta sustapena

3.1 Euskararen aldeko sentsibilizazioa eta sustapena

- a) Euskaraldia: 2021erako, 3 partaideak adostu dute: Euskararen eremu osoan bultzaturiko "Euskaraldia" egitasmoan parte hartzea, bereziki egitasmoaren Koordinazio Batzordean parte hartuz.
- b) Familia transmisioa : 2021erako, 3 partaideak adostu dute familia transmisioari buruzko lanak partekatzea eta bakoitzaren beharren arabera, egitasmo komunak edo desberdinak garatzeko aukeren aztertzea.

3.2 Gogoeta guneak

- a) Gogoetarako alde batek sortutako guneetan parte hartzea
- Alderdi bakoitzak antolatzen dituen gogoetaldi gune eta ekitaldietan (aholku batzordeak, talde tematikoak...) sarbidea ematea.

4. Ikerketak soziolinguistikoak

- a) Euskararen Adierazle Sistema (aurrerantzean EAS)

2021erako partaideek adostua:

- hiru partaideek elkarlanean sortutako adierazle sistemaren garapena elkarrekin jarraitzea,
- proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazleen egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz.

- b) Inkesta soziolinguistikoa

2021erako partaideek adostua:

- VII. inkesta soziolinguistikoaren obratzea nagusiki honako lanak bideratuz: inkesta gauzatzeko modalitateak adostu, galdategia landu, lagina definitu eta osatu, landa lana antolatu eta egin, baita datuen ustiapena.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila



Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua



Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

A. C.

c) Euskaraldiaren ikerketa

2021erako partaideek adostua:

- 2020ko Euskaraldiaren ikerketa-emitzen zabalkundearen plangintza elkarrekin antolatzea

5. Lankidetzeta Europako markoan

2021erako, 3 partaideek adostu dute, aukeren arabera, proiektuak aurkezten jarraitzea europar finantzaketetan eta elkarrekin lan egitea hizkuntza politika integratzeko POCTEFaren etorkizuneko programa operatiboetan.

III. ARTIKULUA- Jarduteko modua

Lankidetzarako Hitzarmen Markoan adostu bezala, jarraipenerako eratu den batzorde mistoak du hitzarmenari dagokion 2021eko Eranskin honen betetze-mailaren jarraipena egiten. Eranskin honen ekintza-programa garatzeko, partaideek, dauden batzordeak erabiliko dituzte, edo batzorde teknikoak eratu dituzte alde bakoitzak bere ordezkariak izendatu ondoan.

Bestalde, lankidetzeta hitzarmen honen baitan obratu eta ko-diruztatu proiektuen gauzatzeko baldintzak adosteko, honako prozedura adostua izan da:

- proiektuaren bideratzeko inizatiba daukan partaideak proiektuaren lehen aurkezpen bat egitea aurrekontu batekin
- bazkideek printzipiozko adostasuna ematea
- obratze modalitateak finkatzen dituen proiektu-fitxa baten prestatzea (ekintza, aurrekontua, partaide bakoitzaren zeregina eta finantzaketa, partaide bakoitzaren erabaki guneak kontuan hartzen dituen behin- behineko egutegia, komunikazioa...)
- beharrezkoa ikusten bada, partaide bakoitzaren erabaki guneetara hitzarmen baten proposatzea eta ondotik partaideek hitzarmena sinatzea.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Sailea


Izenpea
Nafarroako Foru
Komunitateko
Gobernua


Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa
A.C.

IV. ARTIKULUA- Eranskinaren iraunaldia

Eranskin hau sinatzen denetik 2021eko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, hiru alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, hiru aletan, ondoren aipatutako lekuan eta egunean.

Baionan, Iruñea eta Gasteizen, 2021eko uztailaren 1ean.

<p>Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailaren izenean</p>  <p>Bingen Zupiria Gorostidi Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua</p>	<p>Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamenduaren izenean</p>  <p>Ana Olló Hualde Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria</p>
<p>Euskararen Erakunde Publikoaren izenean</p>  <p>Antton Curutcharry Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakaria</p>	